

2021-22 ikasturtea

## Artezkaritza Kontseilua: 9. buletina (2022.05.25)

Artezkaritza Kontseiluak maiatzaren 25ean egin du bilera. Bileran landu diren gai garrantzitsuenak hauek dira:

### Plan Estrategikoa 2022-26

Datozen lau urteetarako Plan Estrategikoa definitzeko prozesua amaitzeko, ekintzak definitzea, ekintza horiei lotutako adierazleak zehaztea, aginte koadroa osatzea, eta ebaluazio tresna eta ibilbidea diseinatzea falta dira. Ikasturte honen bukaera eta datorrenaren lehenengo asteak erabiliko ditugu ekintzak eta adierazleak definitzeko, eta helburuen arabera, dagokion kolektiboarekin (langileak, gurasoak, Hezkuntza Batzordea, Artezkaritza...) lotzeko. Ekintza eta adierazle horiek onartuta, 2022-23 ikasturteko Kudeaketa Plana planteamendu horren arabera osatuko dugu. Ikasturte berriko lehen lauhilekoa erabiliko dugu aginte koadroa eta jarraipeneko tresnak definitzeko. Horrela, 2022. urtearen amaierarako itxita izango genuke datozen lau urteetarako bide orria.

### 2022-23 ikasturteko egutegia

Datorren ikasturteko egutegia onartu da Hezkuntza Batzordean, Jarraipen Batzordeetan landu ondoren. Prozesuaren beraren inguruan zalantzak eta gaizki ulertzeak izan direnez, erabaki da datozen urteetan eskola egutegia erabakitzeko prozesua zein izango den idatziz jasotzea, denok argi edukitzeko. Artezkaritzaren hurrengo bilerarako egingo da proposamena.

### DBHko ordutegi jarraitua

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezezkoa eman dio ordutegi jarraitua izateko gure eskaerari. Hala ere, ikastetxe publikoetan "Hedatze" egitasmoa bideratu da eta aukera hori ikastetxe guztietara zabaltzeko eskaera egin dute itunpeko sareetako ikastetxeek ere. Aukera hori irekitzen bada, berriro egingo zaio eskaera Hezkuntza Sailari.

### Dirulaguntzak eta kontzertazioak

Gailu elektronikoak erosteko dirulaguntzen deialdiaren ebazpena iritsi da. Bai Orereta Ikastolan eta bai Oiartzon, eskatutako kopuruak onartu dizkigu Jaurlaritzak. Beraz, laguntza horretaz baliatuko gara ikasleen zein irakasleen ordenagailuak ordaintzeko.

Bestalde, itunpeko ikastetxeek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin duten kontzertazioari dagokionez, datorren urtean Hezkuntza Saitetik jasotzen dugun finantzaketan igoerak aurreikusten dira, ordezkapenetarako, mantenu eta azpiegituretarako eta orientaziorako, besteak beste. 2023-24 ikasturterako ere aurreikusten dira igoerak. Epe hori igarota, igoera horiek zer estaltzen duten ikusita, gure sarreren eta gastuen egitura berraztertuko dugu, familiek egiten duten ekarpena egokitzeko.

## Kilometroak 2023

Datorren urteko Kilometroei begira, dagoeneko zehaztu da ildo komunikatiboa, alegia, eman nahi dugun mezua. Hiru ideia nagusiren inguruan eraikiko da ildo hori: eskertza (Ikastolak 60 urte beteko ditu eta une egokia da izan garena ezagutzeko, garenaz jabetzeko eta izango garenaz gogoeta egiteko), komunitatea (batzen gaituena azpimarratzea eta ikur gisa, baserria) eta euskara (euskararen eta euskal kulturaren aldeko apustua).

Hiru ardatz horiek kontuan hartuta ekin zaio leloa eta logoa sortzeko prozesuari. Leloa sortzeko, komunitate osoak izan du proposamenak egiteko aukera. Logoa, berriz, DBHko lehen zikloko ikasleekin landuko da. Kasuetako bakoitzean, proposamenak talde tekniko batek jaso eta aztertuko ditu eta horietan oinarrituta, leloa eta logoa zehaztuko ditu. Bi talde tekniko horiek Ikastolen Elkarteko adituek eta Orereta Ikastolako komunitateko adituek osatuko dituzte.

Alderdi ekonomikoari dagokionez, Ikastolak hasiera-hasieratik esan du berehalako behar ekonomiko larririk ez duela oraintxe bertan eta horrek askatasun handiagoa ematen digu dirua zertarako erabili nahi dugun erabakitzeke eta erabilerari hori gure proiektuaren oinarriekin lerrokatzeke.

Artezkariak Kontseiluak erabaki du Kilometroetatik ateratako dirua hiru proiektutara bideratzea:

- *Zubiak Eraikiz* egitasmoa sendotzera: ikastolak Euskal Herri osoan gaude zabaldua, baina guztiak ez gaude egoera berean. Une honetan, Iparraldeko eta Nafarroako ikastolek guk baino egoera larriagoa bizi dute eta horiei laguntzera bideratuko dugu diruaren zati bat, elkartasuna baita ikastolen oinarrietako bat. Zehazki, Orereta Ikastolak harreman estua du Hendaia, Biriatu, Urruña eta Ziburuko ikastolekin, *Zubiak Eraikiz* egitasmoari esker, baita Lesakako eta Berako ikastolekin ere. Egitasmo hori sendotu nahi dugu, ikastola horietako gazteak elkartu, elkar ezagutu eta elkarrekin lan egiteko.
- Euskarari lotuta, Orereta-Erreterian gaur egun dugun erronka bati erantzutera: Kilometroak jaiak Orereta-Erreterian herriari zerbait uztea nahi dugu, jai ez dugu ikastolarentzat bakarrik egin nahi, herriarentzat eta herriarekin egin nahi dugu. Herriko beste eragile batzuekin batera (Udala, ikastetxeak, Lau Haizetara euskara elkarteak, Badalab...), euskararen eta euskal kulturaren inguruan ikusten dugun hutsune bati erantzuteko proiektu bat erabaki eta aurrera eramateko baliabideak jarriko ditugu (euskararen erabilerari lotuta, etorri berriak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeari lotuta...).
- Gure Ikastolarako ere utziko dugu diruaren zati bat, gure komunitatea osatzen dugun guztiontzat erreferentzia den gune bat berri eta egokitzeko: Añabitarte eta baserria. Añabitarte eremu berezia da denontzat eta Baserria, urte hauetan guztietan zutik iraun duen ikurra, gure historiarekin lotzen gaituena. Añabitarte eta Baserria berri ere Ikastolako komunitatearen topagune izatea nahi dugu.

2022ko urriaren 2an jasoko dugu lekukoa Ibarako Uzturpe ikastolaren eskutik. Eta, ondoren, 2022ko azaroaren 4an, 2023ko Kilometroak aurkezteko ekitaldia izango dugu, herriko Lekuona Fabrian.

**Curso 2021-22**

## **Consejo Rector: boletín nº9 (25.05.2022)**

Los temas más relevantes tratados en la reunión de mayo del Consejo Rector son:

### **El Plan Estratégico 2022-26**

Para finalizar el proceso de definición del Plan Estratégico para los próximos cuatro años faltan concretar las acciones, los indicadores asociados a dichas acciones, la elaboración del cuadro de mando, y el diseño y proceso de evaluación. Utilizaremos las primeras semanas del final de este curso y los primeros del próximo para definir las acciones e indicadores y, en función de los objetivos, vincularlos al colectivo correspondiente (personal, padres y madres, Comisión de Educación, Dirección...). Con la aprobación de estas acciones e indicadores elaboraremos el Plan de Gestión del curso 2022-23. Utilizaremos el primer cuatrimestre del nuevo curso para definir el cuadro de mando y las herramientas de seguimiento. Así, para finales del año 2022, tendríamos cerrada la hoja de ruta para los próximos cuatro años.

### **Calendario del curso 2022-23**

Se ha aprobado el calendario del próximo curso en la Comisión de Educación, tras su tratamiento en las Comisiones de Seguimiento. Ante las dudas y malentendidos que se han producido en torno al proceso, se ha decidido dejar constancia escrita del proceso de decisión del calendario escolar, con el fin de tenerlo claro para los próximos cursos. Se traerá una propuesta a la próxima reunión del Consejo Rector.

### **Horario continuado de DBH**

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco ha denegado nuestra petición de mantener el horario continuado. No obstante, en los centros públicos se ha tramitado el proyecto de "Hedatze" y se ha solicitado la extensión de este programa a todos los centros educativos de la red concertada. Si se abre esta posibilidad, se volverá a solicitar poder seguir en horario continuado al Departamento de Educación.

### **Subvenciones y conciertos**

Ha llegado la resolución de la convocatoria de subvenciones para la adquisición de dispositivos electrónicos. Tanto en Orereta como en Oiartzo, el Gobierno Vasco ha aceptado las cantidades solicitadas. Por lo tanto, aprovecharemos esta ayuda para pagar los ordenadores tanto del alumnado como del profesorado.

Por otro lado, en cuanto a la concertación, el próximo año se prevén incrementos en la financiación que recibimos del Departamento de Educación (entre otros, para sustituciones, mantenimiento, infraestructuras y orientación). También se prevén incrementos para el curso 2023-24. Pasado ese plazo y conocedores de lo que estos incrementos cubren, vamos a revisar la estructura de nuestros ingresos y gastos para adecuar la aportación de las familias.

## Kilometroak 2023

Ya se ha definido la línea comunicativa, el mensaje que queremos transmitir. Esta línea se construirá en torno a tres grandes ideas: el agradecimiento (la Ikastola cumplirá 60 años y es un buen momento para conocer lo que hemos sido, para ser conscientes de lo que somos y para reflexionar sobre lo que seremos), la comunidad (subrayar lo que nos une tomando como símbolo el Baserri) y el euskera (apuesta por el euskera y la cultura vasca).

Teniendo en cuenta esos tres ejes, se ha iniciado el proceso de creación del lema y del logo. Para crear el lema, toda la comunidad ha tenido la oportunidad de hacer propuestas. El logo se trabajará con las y los alumnos del primer ciclo de DBH. En cada caso, las propuestas serán recogidas y analizadas por un equipo técnico que definirá el lema y el logo finales en base a las propuestas recibidas. Estos dos grupos técnicos estarán compuestos por expertos de la Federación de Ikastolas y de la comunidad de la Ikastola.

Desde el punto de vista económico, la Ikastola ha subrayado desde el principio que no tiene necesidades económicas inmediatas y urgentes, lo que nos da más libertad para decidir a qué queremos destinar el dinero y alinearlos con las bases de nuestro proyecto.

El Consejo Rector ha decidido destinar el dinero obtenido de Kilometroak 2023 a tres proyectos:

- A reforzar el proyecto “*Zubiak Eraikiz*”: las ikastolas estamos en todo el País Vasco, pero no todas las ikastolas estamos en la misma situación. En estos momentos, las de Iparralde y Nafarroa viven una situación más delicada que nosotros y destinaremos parte del dinero obtenido a ayudarles, porque la solidaridad es uno de los pilares de las ikastolas. En concreto, Orereta Ikastola mantiene una estrecha relación con las ikastolas de Hendaia, Biriatu, Urruña y Ziburu, gracias al proyecto “*Zubiak Eraikiz*”, así como con las ikastolas de Lesaka y Bera. Queremos consolidar este proyecto para unir a las y los jóvenes de todas esas ikastolas, conocernos y trabajar juntos.
- En lo que se refiere al euskera, a dar respuesta a un reto que tenemos hoy en día en Orereta-Errenteria: queremos que la fiesta Kilometroak deje algo al pueblo de Orereta-Errenteria, queremos que la fiesta no sea sólo para la ikastola, queremos que sea para el pueblo y con el pueblo. Junto con otros agentes del municipio (Ayuntamiento, centros escolares, Lau Haizetara euskara elkarte, Badalab...), vamos a decidir y poner en marcha un proyecto que cubra un vacío que vemos en torno al euskera y la cultura vasca (para fortalecer el uso del euskera, para acercar a los recién llegados al euskera y a la cultura vasca...).
- También dejaremos parte del dinero para nuestra Ikastola, para renovar y acondicionar un espacio de referencia para todas y todos los que formamos parte de nuestra comunidad: Añabitarte y el Baserri. Añabitarte es un espacio especial para todos y todas; y el Baserri, el símbolo que ha perdurado todos estos años y que nos une a nuestra historia. Queremos que Añabitarte y el Baserri vuelvan a ser el punto de encuentro de la comunidad de la Ikastola.

Recibiremos el testigo el 2 de octubre de 2022 de la mano de Uzturpe Ikastola de Ibarra. Posterior, el 4 de noviembre de 2022, tendrá lugar la presentación de Kilometroak 2023 en Lekuona Fabrika de nuestra localidad.